



Garraio alorrean zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik exijitu beharreko tasak arautzen dituen uztailaren 12ko 5/2005 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Xedea eta eremua.	2
2. artikulua. Zerga-gaiak.	2
3. artikulua. Subjektu pasiboa.	3
4. artikulua. Sortzapena.	3
5. artikulua. Tasen zenbatekoa.	3
6. artikulua. Tasak kobratzeko organo eskuduna.	4
7. artikulua. Tasak ordaintzea.	4
8. artikulua. Itzulketa.	4
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.	5
AMAIERAKO XEDAPENAK.	5
ERANSKINA.	5
TARIFEN TAULA.	5

HITZAURREA

Lurralde Historikoari emandako eskumenen barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat zerbitzu eta hainbat jarduera egiten ditu errepide bidezko lehorreko garraioaren antolamendu eta kontrolarekin lotuta.

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoak tasak exijitu ahal izango ditu herri jabariaren erabilera pribatiboagatik edo haren aprobetxamendu bereziagatik, zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egiten diren zerbitzu edo jarduerak bereziki subjektu pasiboarekin lotuta daudenean edo hari eragin eta onura dakarkiotenean. Tasak sortzen den kostuari aurre egiteko erabili behar ditu Administrazioak, eta horiek exijitu ahal



izateko beharrezkoa da, betiere, ondorengo zirkunstantzia hauetako edozein gertatzea:

a) Zerbitzu edo jarduerak administratuek beren borondatez eskatzekoak ez izatea. Ondorio horietarako, ondoko kasutan ez da borondatezkotzat hartuko administratuen eskaera:

— Legeetan edo erregelamenduzko xedapenetan ezarrita dagoenean.

— Eskatutako ondasun, zerbitzu edo jarduerak eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialerako ezinbestekoak direnean.

b) Sektore pribatuak ez ematea edo egitea, indarrean dagoen araudian sektore publikoaren alde erreserbatuta dagoela jasota agertu edo ez.

Azaroaren 17ko 17/1993 Foru Arauak araututa utzi zituen garraio alorrean zerbitzuak emateagatik eta beste hainbat jarduketa egiteagatik exijitu beharreko tasak. Bere aldetik, martxoaren 4ko 14/1997 Foru Dekretuak aipatutako foru arauan garraio berezien baimenetarako jasota dauden epigrafeak egokitu zituen.

Europako Batasuneko Kontseiluaren 2.135/98 eta 1.360/02 erregelamenduek ekarri duten erregulazio berriak bi testu arauemaile aldatu ditu: Batetik, 3.821/85 Erregelamendua, errepide bidezko garraioen sektorean aplikatu beharreko kontrol sistemari buruzkoa, eta, bestetik, 88/599/EEE Arteztaraua, 3.820/85 eta 3.821/85 erregelamenduen aplikazioari dagokiona. Araudi berriak beharkizunak finkatu ditu pertsonen eta merkantzien errepide bidezko garraioaren kontrol sistema berria ezartzeko. Horren ondorioz, orain arteko sistema analogikoen ordeztu txip-txartelak eta takografo digitalak erabiliko dira. Garraio gaietan egingo den jarduketa horrek tasa bat finkatzea dakar berekin, eta tasa hori foru arau bidez onartu beharra dago, indarrean dagoen araudiak dioen moduan.

Kontuan izanik garraio alorreko jarduketan gaurko tasak Aurrekontuen Foru Arauan urtero onartzen den eguneratzearen ondorio direla, egoki iritzi da funtsean aurrekoaren egitura berdina izango duen beste foru arau bat onartzea garraio alorreko zerbitzu eta jarduerak Gipuzkoako Lurralde Historikoan eman eta egiteagatik exijitu beharreko tasen araudia testu bakar batean biltzeko. Horrek, jakina, 17/1993 Foru Araua eta 14/1997 Foru Dekretua indargabetzea dakar, eta lagungarria izango da tasen aplikazioa errazteko.

1. artikulua. Xedea eta eremua.

Foru arau honen xedea da Foru Aldundiak garraio alorreko zerbitzu eta jarduketak zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egiteagatik Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatuko diren tasen antolaketa, kudeaketa eta likidazioa arautzea, zerbitzu edo jarduerak bereziki subjektu pasiboarekin lotuta daudenean edo hari eragin eta onura dakarkiotenean.

2. artikulua. Zerga-gaiak.



1. Gipuzkoako Foru Aldundiak ondorengo zerbitzuak ematea eta hurrengo jarduketak egitea dira tasa hauen zerga-gaia:

a) Errepide bidezko garraio jardueran aritzeko era guztietako baimenak tramitatu eta, hala bada, ematea, jarduera lagungarri eta osagarriak barne, eta baimen horiek birgaitzea, luzatzea, ontzat ematea edo aldatzea.

b) Garraio enpresek edo garraioarekin lotutakoek nahitaez erabili behar dituzten liburu edo inprimaki ofizialak egin edota ematea.

c) Takografo digitalekin erabiltzeko nahitaezkoak diren gidariaren txartelak, enpresarenak, eta entsegu eta kontrol gunearenak lehen aldiz editatzea, berritzea, datuak aldatzea, ordezkatzea eta trukatzea.

d)¹ Gidariantzako gaitasun profesionalaren ziurtagiriaren (GPZ-ren) ezarpenari dagozkion prestakuntza zentruen baimena eta ontzat ematea, prestakuntza ikastaroen homologazioa, azterketa eskubideak, hasierako prestakuntza egiaztatzen duen gaitasun profesionalaren ziurtagiriaren ematea eta txartelen emate eta berritzea.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren titularitatekoak diren erabilera orokorreko bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularren emakidak ez dira tasa horiei lotuta egongo, ez eta zerbitzu horien baldintzei dagozkien baimenak ere.

3. artikulua. Subjektu pasiboa.

Aurreko 2. artikuluko 1 apartatuan adierazitako zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak daude tasa hau ordaintzera behartuta, barne hartuta nortasun juridikorik izan gabe zergapetu daitekeen unitate ekonomikoa edo ondare berezitua osatzen duten entitateak, bai eta tasaren zerga-gaia eratzen duten zerbitzu edo jardueretako edozein jasotzen dutenak ere.

4. artikulua. Sortzapena.

Tasaren sortzapena tasa ordainarazten duten zerbitzu edo jarduerak egiten diren unean gertatuko da, foru arau honen 7. artikuluan modu aurreratuan exijitzeari buruz jasotakoa eragotzi gabe.

5. artikulua. Tasen zenbatekoa.

1. Zerbitzu edo jarduera jakinen arabera 2005eko ekitaldirako ezartzen diren tasen zenbatekoak foru arau honen Eranskinean ageri den Tarifen Taulan finkatuta daude.

¹ Letra hau abenduaren 23ko, 9/2008 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009. Urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, gehitzen du zazpigarren xedapen gehigarriaren bat apartatuan. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera jarriko da indarrean (2008-12-31ko GAO), eta 2009. urteko urtarilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak.



2. Diputatuen Kontseiluak ahalmena izango du aurreko apartatuan aipatutako Tarifen Taulan jasotzen diren epigrafeen edukia foru dekretu bidez garatu eta behar diren azpiepigrafeak sortzeko. Kasu horretan, horietako bakoitzerako finkatzen den zenbatekoak ezingo du garatutako epigraferako finkatutako handiena gainditu.

3. Oro har, tasak igotzeko foru arau aplikagarrian finkatzen diren irizpideen arabera jokatu da.

4.² Eskumena duen departamentuko foru diputatuak erabakiko du zenbatekoa izango den, igoerarik bada, garraio berezien alorrean egindako jarduketan tasen igoera, takografo digitalerako txartela eta gaitasun profesionalaren ziurtagiriari dagokiona. Hiru kasuetan, hiru foru aldundiak modu koordinatuan arituko dira.

5. Era berean, unean uneko arau sektorialetara egokitzeko arrazoiak egoteagatik edo beste herri administrazio batzuekin modu koordinatuan aritu behar izateagatik komenigarria gertatzen bada, Diputatuen Kontseiluak foru dekretu bidez egokitu ahal izango ditu foru arau honen Eranskinean ageri den Tarifen Taulako epigrafeak.

6. artikulua. Tasak kobratzeko organo eskuduna.

Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuak tasak bide exekutiboan biltzeko dituen eskumenak eragotzi gabe, foru arau honetan araututako tasak kudeatzea, likidatzea eta borondatezko epean kobratzea garraio gaietan eskumena duen departamentuari dagokio.

7. artikulua. Tasak ordaintzea.

1. Foru arau honetan erregulatzen diren tasak eskudirutan ordainduko dira, erregelamenduz xedatuko den eran.

2. Garraio gaietan eskumena duen departamentuko foru diputatuak hala erabakitzen badu, zerbitzua edo jarduera eskatzen den unean tasak aldeztu aurretik ordaintzea exijitu ahal izango da. Aldeztu aurretik ordaintzea exijitzen denean, ordainketa ezinbesteko baldintza izango da Administrazioak zerbitzua eman edo jarduera egin dezan edo, bere kasuan, bidezko espedientea tramitatzen has dadin.

8. artikulua. Itzulketa.

Subjektu pasiboak tasa aurrez ordaindu badu eta zerga-gaia ez bada gauzatu hari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, exijitutako tasa itzuli egingo da.

² Apartatu hau abenduaren 23ko, 9/2008 FORU ARAUAK, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009. Urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, aldatzen du zazpigarren xedapen gehigarriaren bi apartatua. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera jarriko da indarrean (2008-12-31ko GAO), eta 2009. urteko urtarilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak.



XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Foru arau hau indarrean sartzen denean, indargabeturik geratzen dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak eta, bereziki, honako hauek: Azaroaren 17ko 17/1993 Foru Araua, garraio alorrean zerbitzuak emateagatik eta beste hainbat jarduketa egiteagatik exijitu beharreko tasak arautzen dituenak, eta martxoaren 4ko 14/1997 Foru Dekretua, 17/1993 Foru Arauan garraio berezien baimenetarako jasota dauden epigrafeak egokitzea.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

Lehena: Foru arau honek 5. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau hau garatu, aplikatu eta interpretatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena: Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA

TARIFEN TAULA

I. Merkantzien eta bidaiarien garraiorako baimenak.

— Garraio publiko diskrezionalerako baimenak:

1.1.1. Garraio publiko diskrezionala egiteko edozein motatako baimenak eman edo birgaitzea: 19,04 euro.

1.1.2. Garraio publiko diskrezionala egiteko edozein motatako baimenak luzatu, ontzat eman edo aldatzea: 15,29 euro.

— Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikorako baimenak:

1.2.1. Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikoa egiteko baimenak eman, birgaitu, luzatu edo aldatzea: 19,04 euro.

— Garraio berezietarako baimenak:

1.3.1. Bi hilabeterako balio duen baimena: 20,71 euro jatorrizko ale bakoitzeko.

1.3.2. Lau hilabeterako balio duen baimena: 37,97 euro jatorrizko ale bakoitzeko.

1.3.3. Sei hilabeterako balio duen baimena: 55,19 euro jatorrizko ale bakoitzeko.



1.3.4. Hamabi hilabeterako balio duen baimena: 103,47 euro jatorrizko ale bakoitzeko.

1.3.5. Lehenengoa eman eta gero eskatzen den jatorrizko ale osagarri bakoitzeko, tasa zatikatuko da geratzen den balio epearen arabera. Gutxieneko tasa jatorrizko ale bakoitzeko: 20,71 euro.

1.3.6. Hamabi hilabeterako balio duen baimena, jatorrizko aleak hiru baino gehiago badira: 365,55 euro.

1.3.7. Aurreko epigrafearen jatorrizko baimen osagarri bakoitzeko: 6,86 euro.

1.3.8. Garabiak, makina autobultzatuak edo VE motako ibilgailuak: 172,39 euro.

— Ibilgailuak alokatzeko baimenak:

1.4.1. Gidaria duten ibilgailuak alokatzeko baimenak eman edo birgaitzea: 19,04 euro.

1.4.2. Gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko baimenak eman edo birgaitzea: 19,04 euro.

1.4.3. Gidaria duten ibilgailuak alokatzeko baimenak luzatu, ontzat eman edo aldatzea: 15,29 euro.

1.4.4. Gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko baimenak luzatu, ontzat eman edo aldatzea: 15,29 euro.

II. Garraio enpresek edo garraioarekin lotutakoek nahitaez erabili beharreko liburu edo inprimaki ofizialak egin eta ematea.

2.1. Bideko liburuak egin edo ematea: 7,60 euro.

2.2. Erreklamazio liburuak egin edo ematea: 7,60 euro.

III. Takografo digitaletarako txartelak egin eta ematea.

3.1. Takografo digitalekin erabiltzeko nahitaezkoak diren gidariaren txartelak, enpresarenak, eta entsegu eta kontrol gunearenak lehen aldiz editatzea, berritzea, datuak aldatzea, ordezkatzeta eta trukatzeta: 50 euro.

IV.³ Gidarien gaitasun profesionalari buruzko ziurtagiria ezartzeko baimenak.

4.1. Ikastaroak emateko prestakun tza zentroen baimena: 321,54 euro.

³ Apartatu hau abenduaren 22ko 22/2014 FORU DEKRETU ARAUAREN amaierako lehenengo xedapenak aldatu du. Aipatutako Foru dekretu arauak aurrekontuen luzapenak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten du. Foru dekretu arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera ditu ondorioak (2014/12/30eko GAO).



- 4.2. Prestakun tza ikastaroen homologazioa: 107,18 euro.
- 4.3. Prestakun tza ikastaroen homologazio bisatuak: 107,18 euro.
- 4.4. Azterketa eskubideak: 20,37 euro.
- 4.5. Gidarien gaitasun profesionalari buruzko ziurtagiria egitea: 35,37 euro.
- 4.6. Gidarien gaitasun profesionalaren txar tela egitea: 21,44 euro.
- 4.7. Gidarien gaitasun profesionalaren txar tela berri tzea: 21,44 euro.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 23ko, 9/2008 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009. Urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen (2008/12/31ko GAO).*
 - Zazpigarren xedapen gehigarriak hurrengo prezeptuak aldatzen ditu :
 - d) letra gehitzen dio 2. artikuluko 1 apartatuari.
 - 5. artikulua 4. puntua aldatzen du.
 - IV. Apartatua gehitzen dio ERANSKINARI.
- *2/2014 FORU DEKRETU ARAUA, abenduaren 22koa, aurrekontuen luzapenak 2015eko urtarilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten duena (2014/12/30eko GAO).*
 - Amaierako lehenengo xedapenak eranskinaren IV. apartatua aldatzen du.